

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5129

EBAZPENA, 2022ko azaroaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko maiatzaren 18an emandako Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onartu ziren arautzeko nola bideratuko diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2022ko maiatzaren 23an.

Era berean, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko irailaren 8an emandako beste agindu baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko eskalako salbuespenezko prozesuko deialdia egin zen, eta prozesu horretako oinarri espezifikoak onartu ziren. Agindu hori ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2022ko irailaren 13an.

Hautaketa-prozesuari aplikatuko zaion 10. oinarri orokorrak ezartzen du ezen, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak egiteko epea igarota eta erreklamaziook ebatzita, IVAPEko Zuzendaritzak ebazpen bat emango duela, eta, hor, agindua emango dela argitara emateko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak. Zerrenda horietan, adieraziko da zein den hautagaiak baztertzeko arrazoia, hala dagokionean, bai eta hautagaiak zer modalitatetakoak diren, eta, finkatzeko prozesu berezien kasuan, zer txandatakoak.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Administrazioko Goi-mailako Kidegoko Administrazioko eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrenda, eta Emakumeen eta gizonen berdintasunaren espezialitatea ofizioz aitortuta daukateen behin betiko zerrenda.

2. artikulua.– Agintzea onartutako zerrendak argitara eman daitezela hautaketa-prozesuko web-orriko Eskaerak eta hautaketa-prozesuen jarraipena atalean eta 7. oinarri orokorrean adierazten diren tokietan, hautaketa-prozesuan interesa dutenek zerrendok kontsulta ditzaten.

3. artikulua.– Identifikazio elektronikoko bitartekorik ez duten pertsona guztiei gogorarazten zaie BakQ txartela emateko gaitutako zentroetara jo dezaketela baldin eta hautaketa-prozesurako eman zitzairen aldi baterako erabiltzailea baino ez badute. Izan ere, aldi baterako erabiltzaile hori erabilita, identifikazio elektronikoko bitarteko bat lortu ahal izango dute hasiera-hasieratik egiteko hautaketa-prozesuko jarraipen elektronikoa.

4. artikulua.– Ezartzea 2023ko martxoaren 9an hasiko dela merezimenduak alegatzeko prozesua, eta 2023ko apirilaren 5ean amaituko dela.

Era berean, merezimenduak alegatzeko epean, interesdunek lanposturen bat eskatu nahi badute adjudikatze betekizun espezifikoak dituen, alegatu egin beharko dute betekizun horiek betetzen dituztela. Gogorarazten da hautaketa-prozesu honetako lanpostu batzuek betekizun espezifiko hauek dituztela:

600 orduko prestakuntza laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako eginkizunak betetzeko, edo laneko arriskuen prebentzioko goi-mailako teknikari jarduteko gaikuntza-titulua edo prestakuntza-ziurtagiria, hiru espezialitateetan: segurtasuna, higiena eta ergonomia eta psikosoziologia.

B gidabaimena.

B1 mailako ingelesa edo frantsesa.

Unibertsitate edo administrazio publiko batek egiaztatutako graduondokoa, gutxienez 250 ordukoa, web-edukien kudeaketarekin eta interneteko marketin/komunikazioarekin lotutako gaietan.

Ziurtagiri negatiboa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57.1 artikulua arabera.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren espezialitatea.

Era berean, merezimenduak alegatzeko epean, hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte baldin eta prozesuan parte hartzeko betekizun badira edota merezimendu modura alegatzen badira balora daitezten:

Hizkuntzen tituluak edo ziurtagiriak –ez euskararenak–, hizkuntza-eskola ofizialek ematen ez dituztenak (kopia soila).

Atzerrian lortutako tituluak eta haien homologazio-egiaztariak (kopia soilak), dela hautaketa-prozesuan parte hartzeko alegatu direlako, dela merezimendu modura alegatzen direlako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik edo haren erakunde autonomoetatik kanpo emandako zerbitzuen ziurtagiriak (kopia soila).

5. artikulua.– Gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, ez baitu agortzen administrazio-bidea; beti ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo arabera. Errekurtsua jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsua, bestalde, ebazpen hau eman duen organoari jar dakioko, edo Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 18a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.